

8. Jarduera ekonomikoak

Bilbotarren eguneroko bizimodua garatzen zen tokia garrantzitsua da hiriaren historian; baina berebizikoa da, halaber, gizon eta emakume haiek bizirauteko zer egiten zuten aztertzea, bai landako edo itsasoko lanaren bitartez, bai industriaren edo nekazaritzaren bitartez.

8.1. Lurreko lanak: nekazaritza, abeltzaintza eta baso-ustiapena

Nekazaritza

Erdi Aroan, laborearen eskasia izan zen elikagai ugariena, bai landa-ingurunean bai hirian. Lurraldearen aberastasuna lurralde horrek ekoiztu zezakeen labore-kopuruaren arabera neurtzen zen neurri handian. Hauxe litzateke Erdi Aroko nekazaritzalurren antolamendu idealizatu: erdigunean hirigunea, landatarra nahiz hiritarra, egongo litzateke eta haren inguruan lehenik eta behin baratzeak; hurrengo, mahastiak, fruta-arbolak, liho-sailak eta, batik bat, labore-sailak; eta azkenik, abeltzaintzari eta mendiari eskainitako esparrua. Baina errealitatea ia behin ere ez zen hain homogeneoa.

Elementu horiek guztiak elkarren artean nahasten ziren, eta irudi nahasiagoa ematen zuten.


Bizkaian, laborearen eskasia izan zen Erdi Aro osoko ezaugarri nagusia. Gainerako nekazaritza-produktuak ugarixeagoak ziren, baina biztanle guztiak hornitzeko muga ozta-ozta gaingiditen zuten.

Jaurerriko klima-baldintzek eta bertako

topografia gogorak ez zuten labore-landaketan alde jokatu, ez behintzat gariaren alde; garagarra, zekalea eta artaxikia, aldiz, gehiago egokitu ziren Atlantikoko klimara, nahiz eta haien produkzioa ere ez izan sekula ugarietara. Oro har, etxaldeen landatu ziren laboreak, hau da, abereak sar ez zitezkeen hesiz inguratuta egoten ziren lursailetan.

Bilbo hiriko landa-barrutian, jau-

rerri osoan bezala, labore-produkzioa eskasa izan zen. Ondorio hori ateratzen da, behinik behin, hiriak eta Lurralde Irekiko elizateek lehenengoaren mugak zirela-etaz izandako auzitik. Lekukoari egindako galdeketa ondorengo hau izan zen galderetako bat: *“si sabe que Bilbao y sus términos es,*



BIZKAIKO HIRIBILDUETAKO NEKAZARITZA-LURREN BANAKETA IDEALA ERDI AROAN

Beatrix Aizaga eta Sergio Marfinez


desde tiempo inmemorial, muy estrecha y estéril, y se provee y abastece del pan de fuera parte, y nunca ha habido en ella siembra ni cosecha de ninguna provisión de pan de trigo, ni de centeno, ni de cebada, ni avena, ni borona, ni mijo”¹. Era horretako galdera luzeak erantzuna manipulatzeko erabiltzen ziren arren, egia esan, Erdi Aroan herriko dietaren osagai ia ordezkaezinak izan ziren produktuetan Bilbok zuen urritasunaren isla nabarmena ere bada.

Baina Bizkaiko zereal-produkzioa hain kaskarra izatea eragiten zuen naturak berak beste dohain batzuekin saritu zuen lurralde hau, esate baterako, fruta-arbolen oparotasunarekin. Giza kontsumorako fruituak ematen dituzten zuhaitzen artean hiru multzo bereizten dira: aurrena, fruta-arbola basatiena (intxaurrondoa, gaztainondoa...) –zuhaitz horien fruitu lehorrak urte osoan jan zitezkeen–; ondoren, zitrikoena (laranjondoa eta batik bat limoiondoa) –elika-gaiak kontserbatzeko erabiltzen ziren–; eta azkenik, gainerako fruta-arbolena (madriondoa, aranondoa, gereziondoa, pikondoa eta, batik bat, sagarrondoa).

Gaztainondoak estimazio handia izan zuen jaurerrian, bere fruituak elikadura-ahalmen handia duelako eta fruitu hori irin bihurtzeko aukera dagoelako. Baina bizkaitarren zuhaitzik gogokoena sagarrondoa zen, dudarik gabe, bai bere fruitua zuzenean jan zitekeelako, bai sagardoa egiteko balio zuelako. Uraren ondoren, sagardoa izango zen, seguruenik, jaurerrian gehien kontsumitzen zen edaria. Fruta-arbola horrek jaurerriko biztanleentzat zuen garrantzia argi eta garbi ikusten da sagarrondoren bat moztera ausartzen zirenei jartzen zizkieten zigor larrietan². Sagarrondoak eta beste zuhaitzak behar bezala

ongarritzatzea ezinbesteko lana zen, produkzioa oparoa izateko eta zuhaitzak bizitza luzea izan zezan. Hori argi ikusten da 1497ko Bilboko dokumentu batean. Bertan, debekatu egiten zen hirian Zorrotzako fruitak saltzea, kaltegarritzat jotzen zirelako: “sus cultivadores echan a los arboles cernada e cenysa e mucho estiercol, e fassen otras cosas que fassen dāpnos a las frutas e, por esperiencia, se fallava que eran dāpnosos e dolientes para las gentes que las dichas frutas comen...”. Bilboko agintarien iritziz, ondorengo arrazoiengatik egiten zuten hori Zorrotzakoek: “por madurar de temprano sus frutos e les faser parecer mejores”³. Bilbotarren balorazio horiek euren merkatua hornitzeko konkurrentziari zioten beldurreratik izango ziren seguruenik, baina dena den, ondo adierazten dute nolako arreta jartzen zen bilbotarrentzat hain garrantzitsua zen fruta-arbolen produkzioan.

Fruta-arbolei buruzko azken puntu gisa mahastiak aipatu behar ditugu, izan ere, mahatsak estimu handia izan zuen Erdi Aroan, berarekin ardoa egiten zelako. Biz-



ERDI AROAN MAHASTI GEHIEN ZITUZTEN HIRIBILDUAK


kaian ardo-produkzioa defizitariora izan zen beti, beste fruta-arbolak hazten laguntzen zuten klima-baldintzak ez zirelako onak mahatsa lortzeko.

XIV. mendetik aurrera, mahastiak batik bat hirien inguruan garatu ziren, nekazaritzako beste produktu batzuk ez bezala. Hiritarrak, sagardoarekin egiten zuten bezala, euren salmentak babesten saiatzen ziren, eta horretarako, kanpokoan aldean lehentasuna ematen zieten. Erdi Aroan, Bilbo, Portugalete, Lekeitio eta Gernika izan ziren mahastiei espaziorik handienak eskaini zizkieten hiriak. 1399an, San Gregorio Naziantzokoa kofradiaren enbrioiaren bildu eta euren produktua merkaturatzeko orduan beren interesak defendatuko zituen araudia landu zuten hiriko mahasti-jabeek. Horrek ederki adierazten du zenbaterainoko garrantzia zuen ardo-produkzioak Bilbo hiriarantz⁴. Ondorengo ordenantzek baieztatu egin zituzten xedapen haiek, eta bertako ardoa hobetsi, nahiz eta kanpokoek kalitate hobea izan⁵. Beraz, mahastia dezente hedatuta zegoen Erdi Aroko Bilbo hiriaren paisaian. Zenbait dokumentutan aipatzen denez, hirigunetik oso hurbil zeuden: esate baterako, Askaon, ortuak, mahastiak eta dolareak omen ziren, bai eta Begoñako bidean ere⁶.

Baratzeak ere Bilboko hirigunetik oso gertu garatu ziren, hiriaren inguruan gerriko berde modukoa osatuz. Ibaietan errota ugari eraiki zituzten. Bizkaiko hiri-gutun asko Logroñoko Forutik sortutakoak dira zuzenean, eta han dago jasota ura hartu eta errotak edo errotarriak eraikitzeke baime-na. Bilboko udalak bere eskumena ziurtatzeko landa-barrutietara egiten zituen bisita ugarietan, errota eta burdinolen ikuskapena ere sartzen zen. Errota eta burdinolak bidigaza eta abahurreaz seinalatuta zeuden Ibaizabalen inguruan eta "Kastrexana atearen ondoan"⁷.

Abeltzaintza

Nekazaritza ez, baina abeltzaintza asko garatu zen jaurrean, lurra abeltzaintzarako eskaintzen zituen aukera bikainengatik. XIII. mendera arte, abeltzaintzaren nagusitasuna erabatekoa izan zen Bizkaiko



ERDI AROAN MAHASTIAK HIRI-BARRUTITIK OSO GERTU ZEUDEN BILBON. DOKUMENTUETAN ARGI IKUSTEN DA ASKAON ETA BEGOÑARAKO BIDEAN, ADIBIDEZ, HORRELAXE ZEUDELA

ekonomian. Gero, bere garrantzia moteldu egin zen merkataritza eta burdingintza garatu zirenean. Aldi berean, Bizkaiko hirien garapenak nekazaritza-lurrak ugaltzea ekarri zuen, horietan zereal-eskari handiagoa zegoen eta. Nolanahi ere, abeltzaintzak jaurren ekonomian garrantzia galtzearen ondorio bakarra egoera eksklusibo batetik beste hegemoniko batera igarotzea izan zen.

Hirien inguruan abeltzaintza ugaria izan zen, Bizkaiko zenbait hiritako ordenantzek jasotzen dutenez. Ordenantza horietan, hiriko biztanleria hornitzeari, higiena eta osasun publikoa zaintzeari eta hiriko biztanleen etxaldeak animalietatik babesteari ematen zaie garrantzia. Jaurrean gehien estimatutakoa behi-hazienda izan zen, gero zerri-hazienda, eta atzerago, ardi-, ahuntz- eta zaldi-haziendak eta oila-tegiko animaliak. Azken horiek etxeen atzeko baratzetan egoten ziren askotan. Bilbon, dena den, presio demografikoak eragin

handia zuenez hiriko orubeetan, hirigunean animalia gutxi izango zen.


Basoa

Bizkaia lurralde aberatsa izan zen baso atlantikoetan. Baso horiek haritz, gaztainondo, pago, hurrondo eta beste hainbat espeziek osatzen zituzten; gaur egun, ordenan, pinudi, belardi eta hirilurrek ordezkatu dituzte ia erabat. Basoan, animaliek euren elikagaia lortzen zuten eta gizakiak egurrez hornitzen ziren. Egurra ezinbestekoa zen etxeak, ontziak eta tresnak egiteko, etxeko berokuntzarako eta, ikatz bihurtu ondoren, burdindegietako produkzioarako. Errege-erregina Katolikoek basoak kontserbatzeko politika aktiboa garatu zuten euren erregealdian, eta halaxe egin zuen

Bizkaiko gizarteak ere. Bilbo hiria buru izan zen kontserbazio-politika hartan, egur-premia ikaragarria zuen eta. 1495eko dokumentu batean, Bilboko erregimentuak Pedro Sanchez de Castrejanarekin adostu zuen, horrek herri-lurretan eta herriaren mesedetan landatuko zituela «*los árboles que al bien visto le sea*». 1499ko Bilboko mendiei buruzko beste albiste batean, Juan de Ochanduriren eta Bujanako beste biztanle batzuen konpromisoaren berri ematen da: hiriko barruti eta lurretan, urtero 200 erkametz landatu behar zituzten⁸. Era berean, Bilboko ordenantzek zuhaitzak landatzeko politikak ezarri zituzten. Honela zioen ordenantza horietako batek: «*que arboles se planten mill cada año en los montes de la villa*», eta gero: «*montes, cuando se vendan, un tercio de su valor se distribuya en plantar lo que aquello montare*»⁹.

Basoak babesteko erabaki horiek ezinbestekoak bihurtu ziren hirietako biztanle-

riaren hazkuntzarekin, biztanleriak gero eta egur gehiago eskatzen baitzuen erai-kuntzarako, berokuntzarako eta ikatz-produkzioarako. Horregatik, XV. mendean ahalegin ugari egin zituzten norbanakoek basoak eskuratzeko, eta horrek basoen jabegoa zehatzago mugatzea ekarri zuen. Udalak gogor egin zuen basoek jabetzeko ahalegin horien kontra; 1495ean, Bilboko



udala, eliztarrak, zinegotziak eta diputatuak Batzarraren aurrean kexatu ziren: «*de que algunas personas vecinos de la villa, injustamente, han ocupado muchos de los términos, jurisdicciones, tierras, montes, ejidos y otras cosas a la dicha villa y al uso común de ella pertenecientes*»¹⁰. Hiriaren hazkuntzak gatazkak sortzen zituen beti mugatuak ziren baliabideen erabileraren eta gozamenaren inguruan.

8.2. Arrantza


Bizkaitarrek iparraldeko gizonengandik, hau da, bikingoengandik ikasiko zuten seguruenik nabigazioaren artea. Bikingoek kostalde kantabriarrera egiten zituzten bisita ugarietan erakusten zuten euren trebezia. Nolanahi ere, itsasoarekiko interesa, arrantzari dagokionez, XIV eta XV. mendeetan garatu zen gehien bat, bisita haiek seguruenik ahaztuta zeudenean.

Mende haietako arrantzaren susperraldia herri marinelek izan zuten gorakadan, arrantzale-kofradien garapenean eta hiri batzuetako udal-zigiluetan marineken motiboak agertzean nabaritu zen.

Bilbok burdinaren industrian eta merkataritzan oinarritu zuen gehien bat bere garapena; baina egia esan, itsasadarrean zuen kokapenak arrantza-jardueren garapenari laguntzen zion. 1300eko hiri-gutunak marinek-izaerako klausularik ez zuten arren, ondorengo beste pribilegio batzuek gabezia hura zuzendu zuten, esate baterako, Joan infantea Bizkaiko jaunak, Gaztelako errege izango zenak, emandako pribilegioak. Honela zioen pribilegioak: “los veci-

lan espezializatuagoa zen eta itsasoa eta arrantzaren artea hobeto ezagutzea eskatzen zuen. Dena den, baxurako arrantza ez zen mugatzen jaurreriko kostaldera: Bilboko arrantzaleak maiz iristen ziren Galiziara ere, bilbotarrei 1424an emandako Errege Hornidurak dioenez: “para que las justicias de la villa de muros y demás ciudades, villas y lugares del reino de Galicia, (les) franquedaran sardina, congrio y otros pescados que necesitasen para sus mantenimientos”¹².

Alturako arrantzak, bestalde, iparraldeko norabidea hartu zuen, eta batik bat XV eta XVI. mendeetan garatu zen. XVI.enean, Bizkaiko arrantzaleak maiz joaten ziren Ternura.




nos de la dicha villa que vayan a pescar en el mio señorío con redes... que puedan pescar en cualquier lugar del mio señorío...”¹¹. Euren buruaz gain, kostaldeko hiriek penintsularen barrualdea ere hornitzen zuten arrainez, eta limoia zen gehien erabiltzen zuten kontserbatzeko metodoa.

Arrantzan egiteko bi mota bereizten ziren: baxurakoa eta alturakoa. Lehenengoa asko erabili zuten kostaldeko herrietako ia biztanle guztiek. Alturakoa, ordea, askoz

1479ko hiriko ordenantza batean ikusten denaren arabera, Bilboko merkatura espezie ugari iristen ziren. Honela zioen ordenantzak: “el precio del pescado ha de ser: libra de dorada e erla e barbari, a cinco maravedís; la de muble e lubina a tres maravedís; la de suellas a cinco maravedís; la de aligotes e estacho e todo pescado menudo a dos maravedís e medio”¹³. Ordenantza horretan aipatzen ez den arren, sardina eta bisigua ziren bilbotarrek eta jaurreri osoko biztan-

leek gehien estimatzen zituzten espezieak; dena den, baleak ere zeresan handia izan zuen. Hasiera batean, Bizkaiko Golkoan harrapatzen zituzten baleak, eta gero, Ternuko kostaldean. Gantza eta olioia lortze-



SARDINAK HARRAPATZEKO SAREA.
BERE LAU PIEZAK

SAÑEZ REGUAR, A.: *Diccionario histórico de las artes de pesca nacional*, 1791

ko erabiltzen zituzten gehien, eta horretarako, egosi egiten zuten euron haragia. Beste espezie txikiago batzuk (antxoia eta itsaskia esaterako) ez dira ia aipatu ere egiten, baina asko jango zituzten seguruenik.

8.3. Industria

Bizkaiko industria-sektoreak XIV eta XV. mendeetan erakutsi zuen handitasuna ez da berrikuntza, aurreko joeren azelerazioa

baizik. Hala eta guztiz ere, bi mende horietan aldaketa garrantzitsuak izan ziren, eta Bizkaiko industriari garrantzi handia eman zioten bai penintsulan bai Europan. XIV. mendearen aurretik, jaurreko industria-jarduerak familia landatarren esparruan eta euren kontsumorako garatzen ziren gehien bat. XIV. mendean, ordea, aurreko industria-mota desagertu ez zen arren, industria-jarduera profesionala eta hirikoa garatu zen batik bat.

Bizkaiko hiribilduak industria-jardueraren zentro bihurtu ziren, eta landa-ingurunea hornitzen zuten. Horrek landa-ingurunearen eta hirien arteko merkataritza-trukea bultzatu zuen. Lanbideak ugaritu egin ziren hirietan, eta jarduerak arautu eta Bizkaiko gizartean finkatu ziren. 1402an, Bilboko Santiago elizako hilobien erregistroan ondorengo lanbide hauek ageri ziren, "zerbitzuei" erreferentzia egiten dietenak alde batera utzita: bastagintza, zilargintza, armagintza, arnesgintza, makilagintza, zurgintza, errementaritza (burdingintzaren desberdina), labezaintza (batik bat emakumezkoen lanbidea), adabatzailetza, upelgintza eta zapataritza¹⁴. Iturri partziala eta selektiboa¹⁵ izan arren, XV. mende-amaieran Bilbon garatu ziren jardueren erakusgarri dugu. Zerrenda hori egin eta laurogei urte geroago, antzeko beste erregistro bat egin zen San Anton elizan. Erregistro horretan, lehen aipatutako lanbide batzuekin batera beste hauek ere jaso ziren: aingira-bilketa eta -salmenta, baleztagintza, hauspogintza, jipoigintza, lentzeriagintza, sokagintza eta ziratzailertza¹⁶. Bi zerrendak alderatuz gero, ikusiko dugu XV. mendean zehar industria-jarduerak ugaldtu egin zirela. Hala ere, bi zerrenda horietan aipatutakoak baino gehiago izango ziren lanbideak. Esate baterako, ez da zurratzeko zeregina aipatzen, eta gauza jakina da hainbat urte geroago hirian lanbide arrunta zela Errege-erregina Katolikoek Bilboko kaleetan establezimendu

horiek egotearen aurka ateratako xedapenagatik¹⁷. Lanbideak gehitzeko joerak XV. mende-amaieran eta XVI.aren hasieran ere iraun egin zuen, zeren eta, 1477 eta 1539 artean emandako udal-ordenantzetan ondorengo lanbide hauek jasotzen baitira: hargintza, sarrailagintza, sokagintza, ez-patagintza, okintza eta joskintza, nahiz eta lanbide horietako asko existituko ziren dokumentuetan lehenengo aldiz aipatu baino lehen ere¹⁸.

Oro har, industria-jarduerak jaurerriko beharrak asetzeko joera hartu zuen, behar horiek elkartruke erraza sortzeko adinakoa ziren eta. Dena den, hainbat jarduera izugarri garatu ziren, eta barneko eta kanpoko eskariari aurre egiteko aukera eman zuen, batik bat burdingintzak.

8.3.1. Ontzigintza, armagintza eta oihaigintza

Burdina ateratzearekin zerikusia duten jarduerak gerorako utzita, Erdi Aroan Bilboko industrian gehien garatu ziren jarduerak ontzigintza, armagintza eta oihaigintza izan ziren, hurrenez hurren.

ONTZIGINTZA


Bizkaiko marinel-bokazioaren eta ontzigintzarako behar ziren lehengaietan (egurretan eta burdinetan bereziki) aberatsa izatearen ondorioz, jaurerriko industria-jardueren artean lehen tokian kokatu zen sektore hori, mea ateratzeko lanekin batera. Arrantza-jarduera, itsas merkataritza eta Gaztelako Koroaren gerrarako premiak zirela eta, Bizkaiak ontzi-eskari handia zuen, eta esan beharra dago, Erdi Aroan jaurerriko ontziolak behar bezala erantzun ziotela eskari horri. Bertako beharrei eta Koroaren beharrei ez ezik, atzerriko premia batzuei ere erantzun zieten. Eskatutako ontzi-motaren eta -tamainaren aniztasunera egokitzeak jaurerriko sektorerik dinamikoenetakoa bihurtu zuen ontzigintza, eta ondorioz, landako jendearen (leinuetako

Ahaide Nagusiak) kapital-inbertsio handien helburu izan zen. Gainera, ontzigintza ez zen modu autonomoan garatu: beste hainbat industria-jardueraren garapena ere eragin zuen, besteak beste, sokagile, belajostun, iltzegile, sarrailagile, larakogile, istingari eta abarrena.

Ontzigintza jaurerri osoan hedatu zen arren, Bilboko itsasadarra eta, horren barruan, Bilbo hiria bera eta Deustua eta Abando elizateak izan ziren gehien garatu zutenak. XIV. mende-hasierako dokumentuetan aipatzen denez, ordurako baziren ontziolak Ibarra, Isopotegi eta Pedregalen, eta ontzigile batzuen izenak ere aipatzen dira: Juan de Arriaga, Juan de Begoña eta Martin Lopez de Sangroniz¹⁹. Itsasadarraren bokalean, Portugaleteko portua garapen-gune izugarria izan zen, eta harekin bat egin zuten Sestaok, Santurtzik eta Somorrostro²⁰.

XIII. mendean jaurerrian eraikitako ontziek arrantza-jarduerako beharrei erantzuten zieten batik bat, eta Bizkaian gehien aipatutako ontzia pinaza zeritzona da. Baina XIII. mendetik aurrera, penintsularen eta Europako iparraldearen artean zuen kokapenagatik, jaurerriak merkataritza-garapen handia izan zuen, eta ondorioz, arrantza-ontzien eskariaren nagusitasuna murriztuz joan zen. Europako merkataritzan zuen posizio estrategiko hori funtsezko bultzada izan zen Bizkaiko ontzigintzarentzat, eta handik gutxira, Gaztelako Koroaren behar militarrek ere lagundu zioten. XIV eta XV. mendeetan ohikoa izan zen Bizkaiko Golkoan eskuadra armatuak ikustea hainbat gerra zirela eta. Bizkaiaren parte-hartzea dokumentuetan ageri da, beste batzuen artean, Enrike II.ak Portugalen aurka 1370ean egindako espedizioan²¹, Fernando Antequerakoa erregeak 1407an Gibraltarren musulmanen aurka egindakoan²², 1481eko Otrantokoan²³ eta 1493an kortsarioen aurka defendatzeko sortutako armadan²⁴.

Sevillako ontziolek ezin zioten Koroaren gerrako gero eta premia handiagoei behar bezala erantzun, eta hori beste pizgarri bat izan zen jaurerrian ontzigintza garatzeko. Gerrarako ontzien eskariak normalean pre-sazkoak izaten ziren; horregatik, ohikoa zen kanpaina militarretarako merkataritza-ontziak bahitzea eta ontzien salmenta debekatzea. Hala adierazten du Juan de Zumelzo Bilboko biztanleak lortu zuen barkamena, 1488an ontzi bat Errege-erregina Katolikoan baimenik gabe saltzea salatu ziotenean²⁵.



SAN VICENTE ONTZIOLA XIX. MENDEAN

Errege-erreginek ere gogotsu jardun zuten ontzi handiagoak egitearen alde. Hala ikusten da 1495eko pragmatikan ontzigileei egin zieten eskaintzan: *“buques de mil toneladas, acostamientos de cien mil maravedís, y más al respecto si excediesen de mil, y menos, hasta de seiscientas, que tendrían sesenta mil, y sean preferidas en la carga a todo navío menor”*²⁶. 1498an, edukiera handiko ontziak egitearen komenientzia berresten zuen beste errege-pragmatika batek²⁷, eta 1502an, aurrekoen dirulaguntza proportzionalak aurreikusten ziren mila eta bostehun tona baino gehiagoko ontziak egiten zituzten ontzigileentzat²⁸.

Nolanahi ere, ez du ematen xedapen haiek guztiek Bizkaiko ontzigileen iritzia aldarazi zutenik. Ontzigileek nahiago zuten edukiera ertaineko ontziak egitea, 400 eta 500 tona bitartekoak, bai eta txikiagoak ere. Ederto ikusten da hori 1496an Joana artxidukesari Flandesera lagunduzion eskudran; izan ere, hango ontzirik astunenak 280 tonako edukiera besterik ez baitzuen²⁹.

Ontzigintzaren alderdi teknikoari dagokionez, esan daiteke bizkaitarrek bi ontzigintza-tradizio desberdinen onena aprobe-

txatzen jakin zutela: Atlantiko-koarena eta Mediterraneo-koarena. Hasiara batean, Mediterraneo-ko tekniken eragina oso mugatua izan zen jaurerriko ontzigintzan; baina XIV. mendetik aurrera, eragin hori nabarmen areagotu zen.

Mediterraneotik ekarritako berrikuntzetako bat ontzia estaltzen zuten oholak muntatzeko modua izan zen. Europaren iparraldeko tradizioa oholak goitik behera bata bestearen gainean ezartzean zetzan (solaptuko sistema), baina teknika hori a tope izeneko eraikuntza-sistemak ordezkatu

zuen. Sistema horretan, oholak ez dira bata bestearen gainean jartzen, elkarri muturrean lotuta baizik, uretan sartzeko indarra handitzeko.

Bizkaiko ontzigintzaren beste atal batean ere izan ziren aldaketak, propulsiomoduetan hain zuzen ere. Kantabriar ontzien lehenengo irudietan ikusten denez, ontzi haiek arraunak eta bela bakar karra-tua zeraman masta finkoa nahasten zituzten. Mediterraneo-ko eragina belak ugaltzean gauzatu zen. Bela horiek hainbat mastatan zeuden eta horrek ontzien maniobragarritasuna eta mugikortasuna errazten zuen. Kroskoan ere aldaketa nabarmenak

izan ziren XIII eta XIV. mendeen artean. Aurreko ereduak bularra eta korasta oso altxatuta zituen, brankatik popara berdina zirudiena. Gerokoak, aldiz, Mediterraneo-ko eragina zuen, profil lauagoarekin, 1297ko Santanderko zigiluan ikusten denez³⁰.

Baina iparraldeko nabigazioak ere izan zuen aukera Mediterraneoari bere aurrerakuntzen ekarpena egiteko, ontziak gobernatzeko sisteman ikusten denez. Popa-alde-ira istribor aldean egon ohi zen arraunaren orde, XIII. mendetik aurrera eta iparraldeko eraginez, popari lotutako korastako lema jarri zen. Horrek Bizkaiko kokaren maneigarritasuna ziurtatzen zuen, tamainaz handia izan arren³¹.

Bestalde, brankako eta popako gazteluak orokortu egin ziren XIII. mendean (Santanderko eta Donostiako 1297ko udal-zigiluetan ikusten dira). Elementu horiek egotea, lehorreko gerrateknikak ontzietara moldatzearekin lotuta dago, antza. Esate baterako, norbaitek ontziari erasoz gero, gazteluak babesleku eraginkorra ziren munizioarentzat eta babesleku segurua tripulazioarentzat.

Baina berrikuntza horiek guztiek ez zuten lortu lehengo ontziak baztertzea; horixe erakusten du Bizkaiko kostaldean pinaza izenekoak beste ontzi-mota berri batzuen ondoan iraun izanak. Hona hemen ontzi-mota berri horien izenak: bajelak, naoak, itsasontziak, karabelak, galerak, karrakak, galeoiak, patatxeak, konketeak, zabrak eta baleontziak³². Ontzi-multzo honetatik pinaza izan zen Bizkaiko urak zeharkatzen zituztenen artean berezietakoa. Egitura estu eta luzea zuen, eta bere

ezaugarriak bizkortasuna eta arintasuna ziren. Egokia zen bai arrantzarako, bai itsaslapurrei aurre egiteko, bai merkataritzarako. Batzuetan belaren laguntza izaten zuen arren, berez, arraun-ontzia zen. Baleontzia ere oso ohikoa izan zen kostalde kantabriarrean. Tamaina ertaineko ontzia zen, 80 eta 100 tona bitartekoa, eta oso bizkorra. Hasieran baleak harrapatzeko erabiltzen zuten, baina gero baita piratei aurre egiteko eta merkataritzarako ere. Kokak, karrakak eta karabelak galera ordezkatu zuten. Galera tradizio mediterranearreko ontzia zen, eta gerrarako eta merkataritzarako erabiltzen zuten. Hiru horien

arte, karabela izan zen Atlantikoko eta Mediterraneo ontzien arteko nahasketaren eredurik aipagarriena. Ontzi arin, luze eta estua zen, bizkar bakarrekoa eta brankan ezproia, popa laua, hiru masta (kofa handiengan bakarrik) eta bela latindarrak zituen³³.

Jaurerriko ontzigitzak hartu zuen garrantzi ikaragarria atzerritik egindako eskaeretan oinarritu zen beste batzuen artean, atzerrian estimazio handia

zuten eta Bizkaiko ontziek. Baina Erregerregina Katolikoek XVI. mendetik aurrera garatu zuten politikak geldiarazi egin zuen pixka bat hedapen hori. 1501eko pragmatika baten bitartez erabaki zen: *“ninguna persona de cualquier calidad y condición que fuese, no se atreva sin licencia (de sus altezas) y carta firmada de sus nombres de vender ninguna carabela, ni galera, ni fusta alguna de cualquier calidad que fuese a concejo ni universidad ni a otra persona alguna que fuesen extranjeros de sus reinos, aunque tuviesen carta de naturaleza”*³⁴. Xedapen hori oso kritikatu zuten bere




SANTANDERKO ERDI AROKO
ZIGILUAREN ATZEALDEA

garaietan, eta kolpe handia izan zen bizkaitarren nahientzat, lehen zuten ontzi-eskariaren zati handi bat uxatzen baitzuten. Hala ere, ez zuen jaurreko ontzigintzaren porrota eragin; ordurako, atzerriko eskaria baino askoz etorkizun oparoagoa zabalzen ari zen Bizkaiko ontzigileen aurrean: Indiak konkistatzea.

ARMAGINTZA

Erdi Aroan armagintzak jaurrean bizi izan zuen garapen aipagarriak bi alderdi izan zituen oinarri: Bizkaian burdina eta egur ugari izatea eta burdinaren ustiaketaren ondorioz zegoen azpiegitura humano eta tekniko, burdinolena alegia.

Bizkaiko burdinolen eskaria etengabe handitu zen XV. mende osoan zehar. Ontzigintzaren kasuan legez, Bizkaitik bertatik, Koroatik eta atzeritik zetorren eskari hori. Gai horren inguruan, adierazgarria da Martin Gorosabel ezpatagile bilbotarrak 1519an hartutako konpromisoak eskaintzen digun adibidea. Pascual de Hormaeguiri 208 ezpata zabal eman behar zizkion: *“de la suerte que se acostumbra de hacer para Irlanda”*³⁵. Nolanahi ere, Bizkaian egindako armen xede nagusia ez zen atzerria izan. Armak erama-




BILBO HIRIA ETA DEUSTUA ETA ABANDOKO ELIZATEAK BIZKAIKO JAURERI OSOKO ONTZIGINTZA-GUNERIK BIZIENAK IZAN ZIREN

tea euren zereginari esanahia emateko eta statusa neurtzeko moduzat zeukaten pertsonentzat eta Gaztelako armadarentzat egin ziren hein handi batean.

Eskari gero eta handiago horrek eta produktua eskaintzeko erraztasunak armagintza posizio garrantzitsura eraman zuten Bizkaiko jaurreko jarduera ekonomikoen artean. Gainera, industria horrekin lotura zuten lanbide ugariak frogatzen dutenez, sektore sendo eta anitza bihurtu zen. Hona hemen lanbide horietako batzuk: armagintza, arnesgintza, baleztagintza, ezpatagintza, labanagintza eta txaramelgintza. Artisanu-multzo handi horrek hiru eratako eskariari egin zion aurre. Aurrena, gerrako jantziak egiteari: arnesak, korazak, txaramelak, kapazeteak, zeladak, kaskoak, saremailazko gonak, gozeteak eta ezkutuak; bigarren tokian, eskuko armak: azkonak, baleztak, buloiak, ganibetak, geziak, aizkoltak, ezpatak, lantzak, borrak eta saetak; eta azkenik, su-armak eta munizioak: bombardak, espingardak, gezi-jaurtigailuak, larakoak, pilotak eta abar³⁶. Bai arma tradizionalen (baleztak eta ezpatak) egileek eta bai su-armenek ospe handia izan zuten Koroaren armadak hornitzen egindako lanagatik.

Armagintza Bizkaiko ia lurralde osoan hedatu zen, eta XV. mende-amaieran



SOLAPTUKO SISTEMA A TOPE ERAIKUNTZA-SISTEMA

garrantzi handiko sektorea zen Bizkaiko hiri askotan. Baina hiri guztien artean bi nabarmendu ziren beste guztien gaineratik: batetik, Markina, Bizkaiko armagintzaren zentro nagusia; bestetik, Bilbo. Bilbok Markinaren antzeko produkzio-maila izango zuen arren, armagintzaren gune izatea lausotuta geratu zen hiriko artisautza-aniztasunagatik.

EHUNGINTZA

Bilbo hirian garatutako industria-jardueren artean ehungintzak izan zuen garrantzirik handienetakoa, jaurerriko joera orokorrari jarraituz. Behe Erdi Aroan, Bizkaiko ehungintzak barne-eskaria bakarrik hornitu zuen, eta ehunak kalitate kaskarrekoak ziren. Kalitate handiko ehunak lortzeko inportaziora jo zuten.

Bizkaian bi ehun-mota landu ziren: lihoa eta artilea. Lehenengoa landa-ingurunean egiten zen eta gehien bat euren burua hornitzeko erabili zuten. Artilearen inguruan, bestalde, landa-ingurunearekin zerikusirik ez zuen eta merkataritzarako bokazioa zuen talde independentea garatu zen. Jaurerrian artilea lantzen zuten hiri nagusiak Durango eta Balmaseda ziren, baina XVI. mende-amaierarako, jarduera hori gainbeheran zegoen nabarmen.

8.3.2. Burdin produkzioa

Burdina erauztea eta lantzea Bilbon Erdi Aroan garatu zen jarduerarik garrantzitsuenaz ez den arren, egia esan, mea horrek hiriaren historia markatu du garai hartatik hona. Horregatik, "Bilbora burdina eraman" esamoldea zentzurik gabeko egitekoaren sinonimotzat jo izan da mendeetan zehar, "Newcastle-ra ikatza eraman" pareko esapide ingelesa bezala³⁷.

Jaurerrian zegoen burdin kopuru ikaragarriak mea-ustiategi ugari sorrarazi zituen. Bizkaiko ia herri guztietako histo-

rian zehar egin da mea-ustiategiren bati buruzko aipamena³⁸. Mea-ustiategi horietatik erantzun zitzaion bai Bizkaiko barne-eskariari, bai Gaztelako Koroaren eskariari, bai atzerrikoari, ontzigintzaren eta armagintzaren kasuan ikusi ahal izan dugunez. Baina landutako produktuez gain, Bizkaiak burdin landugabea ere esportatu zuen jaurerriak adina burdin ez zuten eremuak hornitzeko.

Lurraldean beste baliabide batzuk falta zirenez, burdina euskarri ekonomikoa izan zen Bizkaiarentzat; honela dio 1515eko adierazpen batek: *"como consecuencia de la esterilidad de la tierra y del Condado, el recurso principal de que se mantienen sus vecinos, o la mayor parte de ellos, son las herrerías, y si estas se pierden, se perdería la mayor parte del Condado"*³⁹.

Bizkaian burdinaren ustiaketan garrantzirik handiena hartu zuen hiria Bilbo izan zen, baina espezializatuena, agian Ermua. Hara zer zioen 1507ko adierazpen batek



ARTILEA LANTZEN ERDI AROKO
MARRAZKI BATEAN

Bilbo hiriari buruz: *"principalmente hecha e edificada a esfuerzos del trato del fierro e de los veneros"*⁴⁰. Bilbo lurralde elkorrean zegoen kokatuta, eta horregatik, burdina eta merkataritza izan ziren hiriarik garatzen lagundu zioten eragileak. Burdinak zuzeneko eta zeharkako lanbide ugari sortu zituen:

egurra ateratzeko behar ziren zuhaitzak landatzeaz arduratzen ziren langileak; burdinoletan ezinbestekoa zen erregaia ekoizten zuten ikazkinak; harginak; arotzak; burdinolak eta euren erantsitako erai-kinak, presak, ur-ibilguak eta ataurreak eraikitzeaz arduratzen ziren igeltseroak; burdin gordina lantzeaz eta era guztietako tresnak egiteaz arduratzen zirenak; merkataria; kontulariak; etab. Azken finean, era batera edo bestera, burdinaren jardueraren inguruan lanbide-multzo handia zegoen, eta burdinaren jarduera horrek lurraldeak zituen gabezia larriak arintzen zituen, zerealetan aberatsak ziren lurraldeekin egindako burdin trukaketaren bitartez.

Burdinaren industriaren garapen ga-



BILBO INGURUKO MEATZEAK XIX. MENDEAN
Atlas históricos de ciudades europeas lanetik hartua

rrantzitsu horrek hasiera-hasieratik eman zien atentzioa bertako leinuei, eta interes handia azaldu zuten jarduera hartan parte hartzeko. Gero, talde sozio-profesional gehiago elkartu zitzaizkien haiei eta lortu zuten *“la consolidación de la industria siderúrgica vascongada, a lo largo del siglo XV fuera acompañada de un creciente control de la*

*misma por parte de comerciantes y asentistas”*⁴¹.

Burdinaren inguruan sortu zen interes handiak mea-ustiategiak kontrolatzera, basoak eta urak aprobetxatzera eta produktua merkaturatzera zuzendutako arauak idaztea eragin zuen. 1440an foru berezi bat idatzi zen: Burdinolen Forua. Foru hori izan zen bere garrantzi bereziagatik interes gehiegi sortzen zuen jarduera arautzeko erabili zen lege-multzoa. Horrenbestearainokoa izan zen burdinak jaurerrian izan zuen garrantzia, non balio-neurritzat ere erabili izan zen⁴².

Ingurune fisikoari eskainitako atalean egiaztatu ahal izan genuen zein eremu zabalean hedatuta zeuden Bizkaian meategiak. Gehienak Enkarterrietan zeuden, eta meategi garrantzitsuena Somorrostrokoa zen. Somorrostro burdinaren paradisia izan zen.

Ustiakuntzak, berriz, erraztasun juridiko handiak zituen. Meategiak, teoriarik, Koroarenak ziren –ustia ketaren usufuktua ematen zuen–, baina egia esan, Bizkaian ez zegoen hain garbi norena zen jabe goa. Hasiera batean, meategien jabe goa pribilegiotzat jotzen zen; halaxe jaso zuen, 1348ko Alcalako Gortetan, Gaztelako Alfontso XI.ak eta berrogei urte geroago berretsi zuen Joan I.a Bizkaiko Jaunak, Gazte-

lako errege izango zenak. Beraz, Koroaren baimena behar zen meategiak ustiatzeko, eta Koroak produkzioaren zati bat berarentzat hartzen zuen. Bizkaian badirudi zergek ez zutela eraginik produkzioan, baina bai burdina lantzeko orduan. Bizkaitarrek eskubidea zuten euren lurraldean aurkitzen zuten burdina guztia zergarik ordaindu

gabe erauzteko, baina lantzen zuten burdin kintal bakoitzeko 16 txanpon zahar ordaindu behar zizkioten Koroari⁴³. Errenta horiek kobratzeko, "errenteriak" edo mea gordetzen zen biltegiak sortu ziren⁴⁴. Meategia ustiatzearen gaineko kontrolak interes gutxi sortzen zuelako gertatuko zen hori, zeren eta, mozkinak, egia esateko, kaskarrak izaten baitziren. Askoz interesgarriagoa zen mea igaro, garraiatu eta lantzeagatik zergak kontrolatzea, eta arlo horietan zorrotzagoa izan zen kontrola.

Nolanahi ere, aurreko lerroek meategien gaineko errege-eskubidearen interpretazio zabala islatzen dute, baina badira horri buruzko ikuspegi murriztaileagoak, Korok burdina erauzteari, lantzeari eta merkaturatzeari buruzko kontrol eskasa zuela diotenak. Bigarren interpretazio horren arabera, errege-lurretan soilik izaten zen kontrol hori, eta Bizkaian, aitoren semeek ez ziren lurretan bakarrik, aitoren semeek ez baitzuten errege-baimenik behar ustiaketak martxan jartzeko. Beraz, ustiaketa-eskubidea lurren jabeena edo haien gaineko eskubideak zituztenena zen, eta Joan Trastamarakoak Bilbo hiriarri 1372an eman zion pribilegioak jasotzen duenez, baita meategiak aurkitzen zituztenena ere: *"todo ome (de Bilbao) que fallare bena en cualquier lugar, que sea suelto de sacar y aber para sí, pagando al dueño el precio de la heredad segund está preciado por los señores antepasados..."*⁴⁵. Gainera, meategiak zeuden leku asko komunalak ziren, eta beraz, mearen ustiaketa, neurri handian, bizkaitarren eskubidea zela esan dezakegu. Dena den, norbanako edo talde ahaltsuenek erraztasun handiagoak izan zituzten beti ustiake-
tez jabetzeko.

BURDINOLAK

Uraren indarra burdina ateratzeko prozesuetan asko erabili ez zen bitartean, burdinolak gune garaietan kokatu ziren,

meatik eta egurretik hurbil; izan ere, ikatza ezinbesteko erregaia zen burdinoletan, eta ikatza egiteko egurra behar zen. Antzinako burdinolek giza indarraren eraginez bakarrik egiten zuten lan, bai mea gordina xehatu, bai hauspoei eragin eta bai ingude gainean mea garbia mailukatze orduan.

1300 inguruan, burdinolak uraren indarra erabiltzen hasi ziren lehen aipaturiko lanetan. Horretarako, ohiko leku garaiak utzi eta ibaien behealdera lekualdatu behar izan ziren. Horrela sortu ziren burdinola modernoak. Kokapen berri horretan zailagoa zen mea- eta ikatz-hornidura, baina indar hidraulikoa erabiltzearen abantailek ederki orekatzen zuten arazo hori.

Burdina lantzeko urak zuen garrantzia kontuan hartuta, bere aprobetxamendua arautu egin zen, hain baliabide baliotsua modu orekatuagoan banatu ahal izateko. Uraren erabilerak esangura izugarria hartu zuen burdinoletan, eta azkenean, produkzio-unitatearen zati bilakatzera iritsi zen. 1413an Mayor Diaz de Aldanondok eta Teresa Ibañez de Elexatek Ziortzako kolejiatari egindako dohaintzen artean, Markinako burdinolaren zortziren bat aipatzen da, bere lur, onibar eta urekin batera⁴⁶.


Burdina lantzeak egur-premia ikaragarriak zekartzan berarekin, eta behar horiek izan ziren bizkaitarrek zuhaitzak babesteko egindako ahalegin ugarien arrazoietakoa bat eta baita norbanakoek basoez jabetzeko egin zituzten ahaleginena ere. Bizkaiko jaurrierri burdinolek izandako garrantzi ekonomikoa kontuan harturik, Foru Zaharreen nahiz Berrian jasotzen denaren arabera, haiek lehentasuna izan zuten egur-horniduran. Dena den, burdinolen pribilegioek ez zuten inoiz balio izan mendiko baliabideak bereizi gabe erabiltzeko, burdinolen alde egiten zuten lege beraiek basoak babesten baitzituzten. Horrela, 1342ko arau

batek dio burdinoletan erabiltzeko egurmozketak horretarako izendatutako tokietan egin behar zirela eta toki horiek ondorengoek ezarriko zituztela: *“homes buenos de los pueblos e de las comarcas... mas sin danno se pueda haber porque los montes nuevos sean guardados”*⁴⁷.

Bizkaiko jaurerriko burdinaren produktioa kalkulatzeko ez da batere erraza, ez baitago datu kuantitatibo edo kuantifikagarriarik. Hori dela eta, emaitzak oso desberdinak izan dira gaiaz arduratu diren egile bakoitzaren arabera. Arazo horri bi ikuspegitik egin zaio aurre: alde batetik, burdinolen sortzeko ahalmenaren bitartez ekoiztutako kopurua kalkulatzeko, eta bestetik, burdinarekin zerikusia duten jardueren ondoriozko zerga-datuen bitartez. Lehenengo ikuspegitik kopuru handiak atera dira, eta bigarrenetik oso txikiak; beraz, batez beste, urtean 100.000 kintal inguru, hau da, bostehun tona inguru aterako zituzten XVI. mendeko lehenengo urteetan⁴⁸.

ustiatzen zituzten burdinolak alokairuan ustiatzen hasi ziren. Burdinarekin zerikusia zuten merkataritza bilbotarrek halako indarra hartu zuten, ezen burdinoletan egindako produktuen prezioa ezartzen ahalegindu ziren behin eta berriz.

Burdin lanak Bizkaiko eskulanean eragindako erakarpen handiak eta burdinolak hain hedatuta egoteak harremanetan jarri zituen landa-esparrua eta hiri-esparrua, eta normalean kontrako interesak zituzten bi eremu horiek elkartzeko lortu zen. Gainera, burdinarekin lortutako mozkinak esker, jaurerri kanpoko tokietatik



BIZKAIKO BURDINOLEN KOKAGUNAK IZANDAKO BILAKAERA

BURDIN LANAREN GARRANTZIA GIZARTEAN

Erdi Aroan, Bizkaiko burdin produktioak gaintu egin zuen arlo ekonomikoa, eta gizarteko beste hainbat arlotan txertatu zen. Hasiera batean, landa-esparruan, talde tradizionalen mendean eta barne-merkatua hornitzeko bakarrik ekoiztu bazen ere, denborak aurrera egin ahala, burdin produktioa merkaturatu egin zen: hiri-esparrua hartu eta jaurerriko jarduera ekonomikoa dinamizatu zuen. Burdinolen lehenengo jabeek amore eman behar izan zuten burdinaren negozio desiragarrian parte hartzeko amorratzen zeuden merkatarien aurrean. Horren ondorioz, langileek zuzenean

ekarritako zerealaren gastuak kitatzea lortu zen.

8.4. Merkataritza

Erdi Aroan bilbotarrek gauzatutako jarduera ekonomikoaren artean, merkataritza izan zen, dudarik gabe, garapen handienakoa. Burdingintzak baino ere hedapen handiagoa lortu zuen, honek Nerbioiko hiriari ukitu pertsonalagoa eman zion arren. Jaurerria pobrea zen gizakiaren behar nagusia (elikadura) asetzeko produktuetan, eta gabezia horrek eta Bizkaiko lurraldearen marinel-bokazioak ezarri zituzten bizkaita-

rrak merkataritzan jarduteko oinarriak. “Ontza tratuak libra lanak baino gehiago balio duela” dioen esamoldeari jarraituz, bizkaitarrek, eta batez ere bilbotarrek, merkataritza-jarduera garrantzitsua garatu zuten Europa osoan, eta Erdi Aroaren amaieran baita kontinente berrian ere.

8.4.1. Merkataritzarekin lotura dutenak: garraiolariak eta merkataria

Erdi Aroko merkataria irudiak ez zituen, egia esan, gizarteak, oro har, eta moralistek, bereziki, gehien estimatzen zituzten ezaugarriak. Uste zen salerosketa guztiz lotuta zegoela garai hartan bekatu larritzat jotzen zen lukurreriarekin. “Merkatari lanbidea ez zaio atsegin Jainkoari” gogorarazten zuten teologoek. XIII. mendera arte, merkatariei errezeloz begiratzen zien landa-munduan ainguratutako eta hirietan sortzen ziren pentsamolde eta bizimodu berrietatik urrundutako kristau moralak. Baina mende hartatik aurrera, elizaren kritikak leundu egin ziren, ulertu baitzuten, merkataritzatik lortzen zen etekina nabarmena izan arren, aprobetxamendu pribatu hura gizarte osoaren mesederakoa zela. Moralistentzat etekinak lortzea onargarria da helburu izateari utzi eta lanaren ordaina bihurtzen bada. Goi Erdi Aroan nagusi zen landa-munduan, merkataria bigarren mailako elementua zen; baina gero, feudalismoaren oinarriari sustraitik erasotzen zien harreman berriak zekartzan lehen mailako irudi bihurtu zen⁴⁹.

Oro har, gauzak erosi eta saldu eta hortik irabaziak lortzen dituen pertsonari deitzen zaio merkataria. Baina, egia esan, giza irudi horrek ez zuen definizio estu horretan itxita geratu nahi izan, eta merkataria izen orokorraren izenpean hainbat jarduera bildu ziren⁵⁰.

Lehenik eta behin, merkataria txikien multzoa hartu behar dugu kontuan, beste

batzuen artean, tratulariek eta birsaltzaileek osatzen zutena. Bizkaiko merkataria gehienak multzo horretan sartu behar diren arren, euren egitekoa ahalmen handiagoko beste merkataria batzuen mende dago. Iristen ziren produktuak hirian banatzea zuten zeregin, eta horregatik, merkataria handiagoen hornikuntzen mende zeuden. Gainera, euren jarduera udal-agintariek ere kontrolatzen zuten, salmenta-ordutegiekin eta prezioen kontrolarekin merkataria irabazi-asmoak mugatu egingen baitzituzten.

Bigarren tokian merkataria ertain edo ibiltaria multzoa dago. Lehen aipatutakoak, normalean, ez ziren herritik mugitzen; merkataria ibiltaria ezaugarri nagusia, berriz, mugikortasuna zen. Lehorrez nahiz itsasoz batera eta bestera ibiltzen ziren, leku urrutetako produktuak erosi eta eurenak leku haietan saltzeko.

Azkenik, hirugarren multzoan merkataria sedentarioak daude. Multzo horretako merkatariek izugarri ondo menderatzen zuten merkataritza-jarduera, eta asko zekiten merkantziez, diru-transakzioez, leku desberdinen arteko merkataritza-harremanez, merkatariazaren gaineko zergez eta itsasoko nahiz lehorreko ibilbideez. Talde horretakoa zen XV. mendearen amaieran Nerbioiko hirian bizi izan zen Sancho Martinez de Bilbao merkataria. Faktoreak zituen Flandesen, Londresen eta beste hainbat tokitan, eta leku horietara bidaltzen zituen bere merkantziak, batik bat burdina. Hango merkatuetan bere produktuak saldu ondoren, itzuleran beste produktu batzuk ekarrarazten zituen, gehien bat ehunak⁵¹.

Baina merkataritzan zuzenean ziharduen jende horrez gain, baziren era batera edo bestera jarduera horretan parte hartzen zuten beste hainbat langile ere. Horien artean, aurrena, mirabeak zeuden, merkataria nagusiaren mendean batetik bestera nahiz haren ondoan ibiltzen ziren saltzaileak.


Bigarren tokian faktoreak zeuden, merkatariek harreman ekonomiko ugari zituzten merkataritza-guneetako ordezkariak. Hirugarren multzoan, merkatariekin hain harreman zuzena ez zuten profesionalak zeuden: zamaketariak. Ontziratzekeo guneetan merkantzia kargatu, deskargatu eta garraiatzeaz arduratzen ziren. Bizkaiko kasuan, oro har, eta Bilbokoan, bereziki, profesional horien erreferentziarik ez dagoen arren, litekeena da lana pilatzen zen uneetan zenbait lagunek ontziak kargatu eta deskargatzeko lanarekin uztartzea euren ohiko jarduera. Zama-lana gogorra eta luzea izaten zen, eta ontzietako marinelen laguntza ere behar izaten zuten. Azkenik, laugarren multzoan, itsas merkataritzan ontziak gidatzeaz arduratzen ziren nabigatzaileak

egongo ziren. Nabigatzaile horiek gabe alferrikakoak ziren merkatarien negozioak.

8.4.2. Merkataritza-jarduerak

Beraz, lehen aipaturiko jende-multzoak garatu zituen, Erdi Aroan, merkataritzarekin zerikusia zuten jarduerak jaurerrian. Jarduera horietako bat merkantzien garraioa zen. Bilboko portuak eta jaurerri osoak oso kokapen pribilegiatua zuten ahalmen ekonomiko handiko bi guneren erdian, Gaztelaren eta Europaren iparralde atlantikoaren erdian hain zuzen ere, eta merkantzia-garraioaren bitartez biak lotzen zituen.

Horrela ikusten da, beste aipamen dokumental askoren artean, 1488an Valen-



BILBO HIRIAREN IKUSPEGIA XVIII. MENDEAREN AMAIERAN

Bilbao, arte e historia lanetik hartua

tziako merkatari batzuek Bilboko zenbait hiritarri egindako mandatuan. Valentziatik Flandesera datilak garraiatu behar zituzten, eta han, Valentziako merkatarien faktore bati eman⁵². Bizkaitar batzuek euren ontziak merkatari atzerritarren esanera jarri zituzten arren, Gaztelako Koroaren merkatarien zerbitzura lan egitea izan zen ohikoena. Gaztelako Koroak jaurerriko garraio-jarduerari laguntzen zion bere xedapenekin, bere ontziak atzerritarren aurretik pleitatzeko lehentasuna bermatuz.



BILBOKO KONTRATAZIO-ETXEA BRUJASEN
 100 años de la Junta del Puerto de Bilbao
 lanetik hartua

Nolanahi ere, bizkaitarrentzat onuragarriak izan arren, era horretako xedapenak ez ziren aplikatzen, jaurerriko ontzietako maisuen eta atzerrikoen arteko borroka gogorrek eragin zituzketen eta. Horixe ger-


tatu zen Bilbon 1500ean. Ontziak kargatzearen gaineko lehentasunezko errege-pragmatika ez aplikatzeko eskatu zuten bizkaitarrek, hiriko portuan zain zeuden ontzi ingeles eta bretoiekin gatazkarik ez izateko⁵³.

Bizkaitarren garraiolari-lanak garrantzi handia hartu zuen arren, bai Atlantikoan bai Mediterraneoan, lan horrekin batera, benetako merkatari-lana ere betetzen zuten. Bizkaitarren zeregin hori gutxietsi egin izan da gehienetan, aurrena aipatutako jardueraren mesedetan. Hala ere, azken azterketek erakusten dutenez, bizkaitarren merkataritza-jarduera ez zen izan ez ezezaguna eta ez nolanhikoa⁵⁴. Zenbaitetan, bi jarduerak uztartu egiten ziren: ontziko patroiak batzuetan garraiolari hutsaren lana egiten zuen, eta beste batzuetan, merkatariarena. Horixe ikusten da 1497ko auzi batean: Sancho Martinez de Bilboak ehun kintal burdina saldu omen zizkion Pedro de Arechagari, 340 marabeditan kintala, Bilboko prezioa 300 marabedikoa izan arren. Sancho Martinezen argudioa izan zen, Flandesen 400 marabedi ordaintzen zutela kintal burdina eta han salduta irabazia aterako zuela. Beste kasu batzuetan, merkataria ontzijabeak ziren, esate baterako, 1475ean Flandestik Andaluziarako ibilbidea bere ontzian egiten zuen Rodrigo de Fagaza bilbotarra. Baziren garraio-lanekin inolako loturarik ez zuten merkatariak ere, hala nola, bere jardueretarako zerbitzariak eta faktoreak zituen Juan de la Fuente bilbotarra⁵⁵.

Merkataritzan ziharduen jende horrek, Flandesen, Ingalaterran, Britainian eta beste hainbat tokitan faktoreak zituzten merkatari handiek batik bat, euren jardueren bitartez botere izugarria hartu zuten Bizkaitako hirietan XV. mende-amaieran. Horien artean, Bilbok izan zuen merkatari-talderik garrantzitsuena, eta merkatari-talde hori hiriko klase agintaria bihurtu zen, leinu tradizionala eta kideekin eta armadoreekin

batera –batzuetan pertsona bera izaten zen–.

Garraioaz eta merkataritzaz aparte, bilbotarrak pirata-lanetan ere aritu ziren, gehienetan beste jarduera batzuekin uztartuz; baina baziren “pirateriako benetako enpresariak” ere. Pirata bilbotarrek erasotzen zutenean, ez zuten kontuan hartzen ontziaren nazionalitatea. Atzerriko ontziei egindako erasoekin batera, Gaztelako Koro-



BILBO GAZTELAREN ETA EUROPA ATLANTIKOAREN ARTEKO MERKATARITZA-FLUXUAREN ERDIAN ZEGOEN

aren ontzien aurkako erasoen berri ere ematen da dokumentuetan. Hala gertatu zen 1483an. Durango, Deba, Bilbo, Sevilla eta Paloseko biztanleek Diego Fernandez de Valladoliden merkantzi ontziari eraso zioten Kanariar Uharteetara bake-bakean zihonanean. Inoiz, Bilbo hiriko biztanleen artean ere izaten ziren erasoak, esate baterako, Pedro de Ibañez de Zurbaran bilbotarrak bere auzo Martin Ochoa de Larrearen ontziari 1484an egin zion eraso⁵⁶.

Euren jarduerak abian jartzeko, merkataritzatik bereizi ezin den elementu bati egin behar zioten aurre Bilboko merkatariek: arriskuari, bai merkantzien gaineko arriskuari, bai euren biziak zuenari. Arriskuok gertakari naturalek eragin zitzaizketen, esate baterako, ibaien ur-goraldiek lehorreko garraioan eta hondoratzeek itsasoko garraioan. Bestalde, gizakiak eragindakoak ere izan zitezkeen, hala nola, berariazko hondoratzeak, lapurretak, pirateria edo gerra. Lehenengoan artean, hondoratzeak ziren, dudarik gabe, garrantzitsuenak, batik bat itsaso zabalean izaten zirenak. Kasu horretan, merkantzia galdutzat jotzen zuten, zeren eta, kargaren hondarrak kostara iritsi arren, haiek “res nullius”tzat hartzen ziren, eta beraz, aurkitzen zituenaren jabeago. XII. mendearan amaieratik ohitura hori eteteko hainbat xedapen ezarri ziren, baina araua behin eta berriz urratu zuten gero ere. Horrela gertatu zen 1321ean, Bilboko San Bartolome ontzia ehun, harribitxi eta beste hainbat merkantziak kargatuta Flandestik penintsulara zetorrela Kornuallesko kostara desbideratu zutenean. Han, lagun-talde batek lapurtu egin zuen karga, ontzia abandonatuta zegoela eta⁵⁷.

Merkataritzako arriskuak ahalik eta gehien murrizteko, bilbotarrek, Europaren mendebaldeko merkataritza guztiek bezala, hainbat metodo erabili zituzten, besteak beste, itsas aseguruak, itsasoko merkataritza-elkarteak, su-etenak, ibiltzeko baimeak eta babes armatua. Azken hori muturreko egoerarako metodoa zen, baina dokumentazioan azaltzen denez, izugarri garatu zen XV. mende-amaieran, pirata-kortsarioen jarduera areagotu zenean. Ontziak, bakarrik beharrean, multzotan abiatzen hasi ziren. Baina askotan, ezinezkoa izaten zen irteera etengabe atzeratzea, eta beraz, neurri gogorragoak hartu behar izan zituzten, esate baterako, merkataritza-ontziak armatzea, defendatu ahal izateko.

Ondorio hori ateratzen da Bilboko ontzieta-ko maisuek Errege-erregina Katolikoei 1483an egindako eskaeratik. Nitroa ateratzeko debekua kentzeko eskatu zieten, ontziak bolboraz kargatzeko ezinbesteko produktua zen eta⁵⁸.

8.4.3. Merkataritza-harremanak

Bilbo hiriko merkataritza-jarduera ez zen bere inguru hurbilenera mugatu. Europaren mendebalde osoan izan zuen eragina, Ipar Itsasoko uretatik hasi eta Mediterraneoaren kostalderaino.

Lehenik eta behin, Bilboko merkatariak Bizkaiko Golkoaren kostaldean garatu zituzten merkataritza-harremanik oparoenak. Bizkaiko Golkoko hiriek Bizkaikoen oztopo berberak zituzten, baina mugakideak izateak hasieratik lagundu zion merkataritza-trukeari. Produktu berberengatik lehiatzen zirenez –batez ere gatza eta arraina–, hirien arteko hartu-emanak etengabeak izan ziren, eta Bilbo ez zen horietatik kanpo geratu.

Baina penintsula barruko merkataritza-harremanen artean, Gaztelako erreinuaren barrualdearekin burututakoa izan zen Bilborentzat garrantzitsuena. Bilboren eta Mesetaren arteko komunikazioa Balmaseda, Urduña eta Durangoko bideetan zehar gauzatzen zen. Burgos izan zen, Bilboren eta penintsula-barrualdearen arteko merkataritza-harremana ahalbidetu zuena. Bertatik banatzen ziren jaurerriak esportatzen zituen produktuak, batik bat burdina eta arraina. Aldi berean, bertatik ateratzen ziren Bilbotik zehar Europara iristen ziren Gaztelako produktuak. Azkenik, Burgostik etortzen ziren lur kantabriarretako gabeziak orekatzeko behar ziren zereal gehienak ere.

Bilbotarrak askotan joaten ziren Sevilla hirira, handik sarbidea zutelako Guadalquivir haraneko zereal-lurretara. Diego Lopez de Haro jaunak emandako pribile-

gioei esker, 1301etik aurrera, Bilboko merkatariak gaskoi eta genoarren mailan geratu ziren Sevillan. Bizkaitar guztiei emandako antzeko beste pribilegio batzuek Andaluziako hiri hartan jaurerriko merkatarien kolonia bat osatzen lagundu zuten. Sevillako udalak bizkaitarren pribilegioak betetzeari utzi zionean, haiek nahikoa indar izan zuten eurentzat kaltegarriak ziren udal erabakiak indargabetzeko. Horrek ederki erakusten digu zenbaterainoko garapen-maila lortu zuen merkatari-kolonia hark Sevillan.

Penintsula-barruan dezenteko zeresana izan zuten Portugalekin eta Mediterraneoako kostaldearekin izandako harremanek ere. Bi merkataritza-eremu horien artean, bigarrena izan zen gehien garatu zena, batez ere XV. mendearen hasieran Kataluniako merkataritza gainbehera hasi zenetik. Hala ere, mende horren amaieran, Bilboko jarduerak behera egin zuen Mediterraneoan, batik bat euskal merkataritzak garai hartan Atlantikorako joera nabarmena hartu zuelako, bai Europaren iparralderantz eta bai Ameriketarantz. Dena den, badira Bilboko merkatarien erreferentziak Mediterraneoako kostan, esate baterako, 1485ean Bartzelonako biztanle batek Juan de Plasencia bilbotarraren aurka Bizkaiko Justiziaren aurrean aurkeztutako auziaren berri ematen duena. Bartzelonako biztanlearen esanetan, Juan de Plasenciak ehunez kargatutako ontzia lapurtu omen zion Valentziako portutik irtetea⁵⁹.

Penintsulaz kanpoko esparruari dagokionez, Ingalaterran, Frantzia eta Flandesen garatu ziren bilbotarren merkataritza-harreman garrantzitsuenak. Ingalaterrarekiko merkataritza-harremanak XIV. mendearen hasieran abiatu ziren, eta aitzin-aitzinetik, gatazka larriak sortu ziren merkatari ingeles eta bizkaitarren artean. Liskarrik latzenak zergen ingurukoak ditugu. 1480an, adibidez, auzia sortu zen Bilboko portuan, kobratu behar ez ziren zenbait zer-

ga kobratu nahi izan zizkietelako Ingalaterrako hiritar batzuei.

Andres Yngles Ingalaterrako ordezkaria zen Bilbon, eta Gaztela eta Ingalaterrako erreinuen arteko hitzarmenak ez bete izana leporatu zion Bilboko udalari. Hitzarmen horien arabera, Ingalaterrako merkatariek ez zuten bestelako zerga eta eskubiderik ordaindu behar. Salaketa aurkeztu eta denbora asko baino lehen, Errege-erregina Katolikoek zerga kentzera eta auziaren ondoriozko gastuak ordaintzera behartu zuten Bilboko udala⁶⁰.

Bilbo eta Ingalaterra artean garatutako merkataritza-harremanetan burdina eta ehunak ziren nagusi. Aldian behin, beste produktu batzuk ere izaten ziren Ingalaterrara zihozten ontzietan, esate baterako, ardoa. Ingalaterratik, bestalde, larruak, eztainua eta elikagaiak ere etortzen ziren, ehunez gain. Dena den, burdinak eta ehunek monopolizatu zituzten Bilbo eta Ingalaterra arteko elkartrukeak.






Bizkaia eta Frantziako kostaldea hurbil zeudenez, nahiko goiz hasi ziren merkataritza-harremanak izaten, baina harreman horiek XIV eta XV. mendeetan garatu ziren gehien bat. XV. mendearen erdira arte hartu-eman onak izan zituzten; baina orduan, asko berotu zen giroa, eta ezin izan zen baretu Karlos VIII.a Frantziakoak eta Errege-erregina Katolikoek 1493an eta 1494an hurrenez hurren hartutako erabakiekin ere. Hala eta guztiz ere, merkataritza-harremanek aurrera jarraitu zuten, eta Bizkaitik esportatutako produktuak burdina, artilea eta frutak izan ziren batez ere. Burdina landu gabe esporta zitekeen, Fernando de Capitulok 1496an egin zuen bezala Bilbo eta Baiona artean. Hala ere, burdinazko edo altzairuzko barretan esportatzea zen ohikoa. Frantziak, bestalde, oihalak esportatzen zituen, baina ez Ingalaterrak adina, eta baita ardoa eta beste elikagai batzuk ere, esate baterako, urdaia, arraina, gatza eta sagardoa⁶¹.

Merkataritza-harremanen azken esparrua Flandes izan zen. Burgostarrak XIII. mendetik ezarri ziren Brujasen, eta haiekin batera, bizkaitarren batzuk ere bai, seguruenik. Dena den, XIV eta XV. mendeetan garatu ziren, batik bat, Flandesekiko merkataritza-harremanak. Brujas Europaren iparraldeko merkataritzaren erdigunean zegoen, eta berak monopolizatu zituen Bizkaia eta Flandesen arteko elkartrukeak. Ingalaterrakoak edo Frantziakoak adinakoak ez izan arren, hemen ere sortu ziren istilu batzuk, bai bertakoen eta bizkaitarren artean, bai bizkaitarren eta burgostarren artean –azken horiei inguru hartako merkataritza kontrolatzea interesatzen zitzaien–. Bizkaiko produktu berezienak burdina eta artilea ziren, eta esportazio-kopururik handiena Bilboko portuan sortzen zen. Artilearen kasuan, bilbotarrek garraiolana bakarrik egiten zuten, baina lehenengoarekin benetako merkataritza gisa jokatzeko zuten, eta itzulerako bidaian Flandesko ehun ospetsuak ekartzen zituzten. Burdinaz eta artileaz gain, beste hainbat produktu ere eramaten zituzten, esate baterako, frutak, ardoa, gatza, alunbrea, kotoia eta papera. Gainera, saltzea debekatuta zegoen arren, Bilbon eraikitako ontziak ere esportatzen ziren.

8.4.4. *Bilboko Kontsulatua*

XIV. mendean, Bilbok Burgosen kostaldeko sukurtsal gisa jardun zuen hein handian. Europarekiko merkataritza-harremanak ahalbidetzen zituzten portu-irteerak eta ontziak eskaintzen zizkion hark Gaztelako hiririari. Baina Bilbok XV. mendean izandako garapen ekonomiko aipagarriak aldaketa nabarmena eragin zuen harreman horretan, bilbotarrek Burgosen babesik gabe garatu nahi baitzituzten merkataritza-harremanak.

Atlantikoaren iparraldeko merkataritza kontrolatzeko sortu zen lehiak merkataritza



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

BILBOREN MERKATARITZA-TRUKEAK ERDI AROAN

tza-elkarteak osatzera behartu zituen bi hiriak, bakoitzak bere posizioari eutsi ahal izateko. Burgosek merkatarien unibertsitatea zuen, eta 1455etik aurrera, euren eskumeneko merkatariengan agintea zuten kontsulak izendatzeko ahalmena zuen. Era berean, Bilbok Santiagoren izenpean elkartutako negozio-gizonen kofradia zuen. Kofradia hura asko garatu zen XV. mendean, hiriaren hazkuntza ekonomikoaren mende. Elkartearen funtzionamendua arindu eta errazteko, kideek urtean behin auke ratzen zituzten fiel bat eta bi diputatu zituzten. 1489an, kofradia hura unibertsitate bihurtu zen. Orduan udalaren kontrolpean jarraitzen zuen arren, ordenantza propioak zituen eta eskumena zuen merkataritza-kontuetan. Unibertsitate haiek ahalmen mugatuak zituztenez, Burgosko merkatariek kontsulatu edo merkataritza-epaitegia sortzea eskatu zieten Errege-erregina Katolikoei, berme eta eraginkortasun handiagoa izan zezaten, abokatu eta prokuradorerik gabe epaitzeko kontsulatu-tradizioa baitzegoen⁶².

1494an, Errege-erregina Katolikoek onartu egin zuten Burgosko merkatarien eskaera, eta Errege Pragmatika baten bitartez, Burgosko kontsulatua sortu zen. Hasiera batean, kontsulatu horren eskumenean Koroako merkataritza guztiak sartu ziren, baita bilbotarrak ere. Horien erantzuna, jakina, aurki heldu zen, eta 1495ean Burgosen jurisdikziotik kanpo geratzea lortu zuten. Hala ere, Ozeano Atlantikoko joan-etorrietan ontziek "pleitamendu" bateratua egiten jarraitu zuten.

Bilbotarrek, ordea, Burgoskoen abantaila beraiekin jardun nahi zuten merkataritzan Atlantikoan, eta beraz, eskusio hark ez zituen haien nahiak baretu. Horregatik, Burgoskoa bezalako kontsulatua sortzea eskatu zioten Koroari. Bilbotarren eskaerak ere jaso zuen entzuna; hortaz, Joana erreginak emandako Pragmatikaren bitartez Bilboko kontsulatua osatu zen 1511. urtean.

Kontsulatua sortu ondoren, fielaren eta diputatuen erabakiek ondorio juridiko guztiak zituzten, ez aurrekoen bezala, erabakiak hartzen zituzten arren, ez baitziren inoiz epai irmo bihurtzen.

Bilboko kontsulatua sortu bezain laster hasi ziren arazoak Burgoskoarekin, beste arrazoi batzuen artean, burgostarrek ontzi handietan pleitatu nahi zituztelako euren merkantziak, eta ontzi horiek ezin zutelako Portugaleteko barra igaro.

Hala ere, denborak Bilboren alde jokatu zuen, eta Burgosko merkataritza XVI. mendean amaieran 1450etik 1580ra izan zuen nagusitasuna galtzen hasi zen bitartean, Bilboko kontsulatua tresna eraginkorra bihurtu zen bilbotarren merkataritzari garatzen laguntzeko.

8.4.5. Hiriaren hornidura

Erdi Aroan, Bilbo hiria, jaurerriko hiribildu guztiak bezala, behar zituen elikagai guztiak ekoizten ahalegindu zen, inportatu beharra saihesteko⁶³. Baina eginahala alferrikakoa izan zen: lurraren elkortasunak merkataritzara jotzera behartu zituen bilbotarrak, elikatzeko behar zituzten produktu gehienak, batez ere zerealak, lortzeko. Zerealak hainbat tokitatik ekartzeko aukera zegoen, bai penintsularen barrualdetik –Burgos, Errioxa, Tierra de Campos–, bai hegoaldeko lurretatik –Andaluzia–, bai atzerrietik –Frantzia, Ingalaterra, Portugal eta abar–.

Zerealak lortzea denen premia zen arren, merkatariek arduratu ziren hiriak produktu hartaz hornitzeaz, eta euren kalkulatu zuten merkatuetara eraman beharreko zereal-kopurua. Oro har, bertako merkatariek hornitu zuten jaurerria. Hala erakusten du Juan de Bermeo bilbotarraren kasuak, Andaluziatik 700 lakari gari ateratzeko baimena jaso zuenak⁶⁴.

Gariarenarekin batera, beste hainbat gairen hornidurak garrantzi handia izan

zuen Bilborentzat, eta ulertzekoa da udalak askotariko neurriak hartzea, arazoa konpondu ahal izateko. Baina Bilboko



KONTSULATUKO XVI. MENDEKO
ORDENANTZEN ARGITALPENA
Bilbao, arte e historia lanetik hartua

barrutia osatzen zuten biztanle guztien artean, harresi barrukoek jaso zuten udalagintarien aldetik arretarik handiena. Kanpoko biztanleen aurkako erabaki diskriminatzaileen bitartez, barrukoei laguntzea zen helburua. Hartutako erabaki horiek monopolistak eta protekzionistak izan ziren batez ere.

Bilbo merkataritza-monopolioa antolatzeko ahaleginak egin ziren, eta horretarako, inguruan garatzen zen merkataritza bere barnera eraman zuten. Zehazki, hiri jakin batzuen mesedetan bideak desbideratzeko presio handiak egoten ziren; horren lekuko dugu Urduñatik Bermeora zihoan bidea Bilbotik igaro zedin Maria Lopezek 1310ean eman zuten pribilegioa.

Bideak desbideratzeaz gain, baziren merkataritza-monopolioari eusteko beste ohitura batzuk ere, eta ohitura horietan Bilbo hiria mailarik gorenera iritsi zen Bizkaiako hiribilduen artean. Horren ondorioz, etengabeko borroka izan zituen errebalekin, Lurralde Irekiarekin eta beste hiri batzuekin.

Errebalen kasuan, Bilbok debekatu egin zuen bere inguruetan merkataritza-jarduerak burutzea; harresien barruan egin behar ziren. Horixe izan zen errebalekiko istiluen arrazoia. Izan ere, merkataritza hiribilduetako berezko jarduera zenez, ulertzekoa da Bilbok hain irabazi handiko jardunak bere barnean monopolizatu nahi izatea. Egia esan, merkataritza hiribilduen kanpoaldean ezartzeko debekuak errebaletako biztanleengan eta harresi barrukoengan zuen eragina, horiek ere ezin baitzuten harresitik kanpo salerosketarik egin. Harresiz kanpoko tratu informalak ere debekatuta zeuden: udala beldur zen ez ote zuen biztanle guztien hornidura lortuko eta salmenta-prezietan ez ote zen kontrolik egongo, aurrerago ikusiko dugunez.


Errebalen kontrako arau gogor horiek are gogorragoak ziren tratulari eta birsaltaileen kasuan, euren jarduerekin produktuen prezioa alda zezaketelako eta hiriko biztanleak hornitu gabe utzi. Debekatutako merkataritza-jarduerengatik ezartzen ziren zigorrak hamar bider handiagoak ziren egilea tratularia bazen.

Bilbok bere errebaletan zuen politika monopolistaren azken eredu eta nabarmena 1498ko ordenantza dugu. Ordenantza horrek uzta hiri barruan gordetzera behartzen zituen bere jurisdikzioko biztanleak, eta familiako kontsumorako behar zutena bakarrik uzten zien ateratzen⁶⁵.

Lurralde Irekiarekiko harremanean, berriz, Bilbo dugu gatazkarik gehien izan zituenetakoa, garapen ekonomiko handiaren eta inguruko espazio osoa kontrolatu eta antolatzeko etengabeko ahaleginen

ondorioz. Hiriak XV. mendearen amaieran zuen botereak bere merkatura joaten ziren Lurralde Irekiko biztanleei legez kanpoko baldintzak jartzeko aukera ematen zion, indartsuenaren legean oinarrituta. Bien bitartean, errege-xedapenek ez zituzten hiriaren legez kanpoko ekintzak baliogabetzen. Dena den, Lurralde Irekiak ez zuen egoera haren aurrean amore eman:

hiribilduak sortzeko prozesu luzeagatik. Gutxi ziren bitartean, hiri haiek inguruko landa-espazioak baliatzearekin konformatu ziren. Baina jaurerri osoa inguruko merkataritza antolatzeko interesa zuten hiribilduz bete zenean, istiluak saihestezina izan ziren, horiek ez baitzeuden prest inolako boteririk besteen esku uzteko. Era horretako arazo nagusia Bilboren eta



BILBOKO POLITIKA MONOPOLISTA ETA BABESLEA ERDI AROAN

ez zien hiriaren xedapenei menik egin eta auzitan sartu zituen. Auzirik entzutetsuenak gutxienera murriztu zuen Bilboren eskumeneko barrutia XV. mende-amaieran, baina ez bere ahalmen ekonomiko eta soziala.

Monopolioa zela eta, gainerako hiribilduekin ere harreman ekaiztsua izan zuen, beste arrazoi batzuen artean, Bizkaiko

Ugaoren artekoa izan zen. Ugao 1375ean sortu zen Areetaren eta Bilboren arteko bidean, eta 1310eko pribilegioaren arabera, debekatuta zegoen *"tener compra ni venta ni regatería ninguna"*. Ugaoren sortzaile Joan infanteak ez zien jaramonik egin bilbotarren eragozpenei, zeren, bere iritziz, Ugao sortu zen tokian ohikoak ziren merkataritza-jarduerak, eta bilbota-

rrek ezagutzen zituzten, gainera. Horregatik, izatezko egoera hori eskubidezko bihurtzeak ez omen zion kalterik egiten Bilbori.

Portugaleterekiko harremana ere ez zen zenbait unetan oso atsegina izan, bi hiribilduek itsasadarreko merkataritza-trafiko handia monopolizatzeko egin zituzten ahaleginengatik. Bilbotarrek itsasadarreko jarduera komertziala monopolizatzeko ahaleginetako bat 1489an ezarritako arau arbitrarioan ikusten da. Arau horretan, Bilboko merkatuan erosketak egitea debekatzen zaie Portugaleteko biztanleei, nahiz eta ordura arte bestela izan⁶⁶. Debeku horren helburua ez zen hiriak onura ateratzea, ezta gutxiagorik ere. Debeku horren bitartez, Bilbok botere-erakustaldia egin nahi zuen Portugaleteren aurrean, ekonomiari begira kaltegarria izateaz gain, xedapen hori umiliagarria zen eta.

Baina bilbotarren jarrera hori ez zen jaurerriko hiribilduetara mugatu. Kanpokoe-kin ere jarrera bera izan zuten, eta istiluak sortu ziren golkoko beste hainbat hirirekin ere, besteak beste, Donostia, Laredo eta Urdializekin, eta baita Burgosekin ere, lehen aipatu dugunez.

Babes-neurri gisa, ostera, hiribilduetatik elikagaiak ateratzeko zeuden eragozpenak ditugu, eta batik bat, bertako produktuak kanpokoak baino lehen saltzeko bete-beharra. Bilbo bere ardo- eta sagardo-produkzioa babesten saiatu zen, eta horrela, dudarik gabe kalitate hobea zuten beste batzuekin lehian aritzea saihestu zuen. XIV. mende-amaieran, Nerbioiko hiriak araututa zuen zein egunetan has zitekeen kanpoko ardoa saltzen. Bilbok merkataritzaren gainean zuen kontrol zorrotza, beraz, arindu egin zen pixka bat kanpoko ardoa saltzeko data ezartzean; horrela, merkatariek ez zuten hirian bertako zenbat ardo zegoen etengabe jakiten ibili beharrik. San Migel eguna (irailaren 29a) auke-

ratu zuten, eta ardoa saltzeko hamabost eguneko frankizia-epea ezarri. Epe hori igarotakoan, saldu gabeko ardo guztiak erretiratu egin behar ziren. Epea oso laburra zenez, hiriak luzatu egin behar izan zuen urrutiko ardoei sartzen uzteko, adibidez, Arroxela, Galizia, Bordele edo Portugalgo ardoak sartzeko. Leku horietako edariok hiriaren inguruan (Barakaldon, Arriagan eta Asuan, esaterako) biltegitartzeko baimena eman zuen, baina ez zien utzi hiri barrura sartzen⁶⁷.

Dena dela, hiriak merkataritza kontrolatzeko hartutako neurriak ez ziren kanpoko esparrura mugatzen, ezta gutxiagorik ere. Behar ziren produktuak lortu eta Bilbok haien gainean bere neurri monopolista eta protekzionistak gauzatu ondoren, barruko merkataritza kontrolatzera bideratutako beste neurri batzuk aplikatzen zituen. Kontsumitzailea babestea zen Bilboko udalaren helburua.

Barne-kontrolaren oinarrietako bat handizkako salmentaren debekua izan zen. Bilboko biztanleak gose-beldurrez hiritik kanpo elikagaiak handizka eroatera joatea saihesteko, harresien barruan txikizkako salmentak egiteko epeak ezarri zituzten. Epe horien ondoren, merkantziak hiritik atera eta beste edozein tokitara eraman zitezkeen. Zerealak eta lekaleak saltzeko epea bost egunekoa zen. Uste zuten epe hori nahikoa zela produktu horietakoren bat erosi nahi zuenak aukera izan zezan⁶⁸. Beste produktu batzuek, ostera, epe laburragoa zuten barne-merkatuan egoteko (hiru egunekoa arrainak), eta beste batzuek oso luzea (olioak, esate baterako, saltokira iritsi eta pregoia egiten zenetik hogeita hamar egun)⁶⁹.

Salmenta-epe horrez gain, Bilboko udalak ordutegi bat ere ezarri zuen, produktuak norbanakoei saltzeko baina tratularieei ukatzeko. Goizeko hamarrak arte tratulariek debekatuta zuten antxumeak, kapoiak, oiloak, oilaskoak, arrautzak, gazta, gurina,

udareak, gaztainak, pikuak, arbeletxeoak, aranak, gereziak eta beste hainbat fruta erostea.

Antza denez, epe hori goizeko hamaikak arte luzatu zen, eta norbanakoek denbora gehiago izan zuten kontsumorako produktuak erosteko⁷⁰. Horrekin nahikoa ez eta handizkako salmentari eragozpen gehiago jartzeko, eskatzen zuen guztiari merkan-

Prezioen kontrola izan zen Bilboko udalaren hirugarren kezka. Printzipio orokorra zen udalak eta udaleko ofizialek bakarrik zutela hirira iristen ziren merkantzien prezioa erabakitzeko ahalmena. Hortaz, debekatuta zegoen hiritarrek nahiz kanpotarrek komunitatearentzako garestiegiak ziren prezioak ezartzea. Produktuak deskargatu ahal izateko udalari baimena eskatu behar-


rrak asko errazten zuen prezioak kontrolatzeko lana. Bistakoa denez, merkatariek ez zeuden ados erabaki horiekin, zeren eta, euren iritziz, eskubideak urratu zizkieten eta udalak ezarritako prezioak batzuetan ez ziren bat etortzen merkantzien benetako balioarekin. Dena den, Bilboko agintarien egiteko guztia ez zen prezioak eta saltzeko moduak erabakitzea: produktuen kalitatea ere euren kezken artean zegoen. Produktuen kalitatean

iruzur egitea izan ziteke-

en produktu horiek merezi baino garestiago saltzea edo baldintza txarretan saltzea. Lehenengoa gerta ez zedin, Bilboko tabernetan kalitate desberdineko ardo eta sagardoak saltzea debekatu zuten⁷². Bigarren alderdiari dagokionez ere esanguratsua dugu sagardoaren kasua. Ikuskapen ugari egiten zituzten sagardo berria ozpindutakoarekin nahastuta ez zegoela egiaztatze⁷³.

Hiri-barruko merkataritzaren gaineko kontrola osatzeko, udala bi alderdi garrantzitsuz arduratu zen: pisu eta neurriez eta azokaz.

Pisu eta neurriak finkatzea Bilboko udalaren egitekoa zen; baina merkataritza-jarduerak erraztearren, zenbait merka-



BILBOK HURBILEKO HIRIBILDUEKIN MERKATARITZAN
IZANDAKO GATAZKAK

tziak txikizka ematera behartu zituzten saltzaileak.

Udalak kontrolatu nahi izan zuen beste alderdi bat birsalmentarena zen, agintariak ez baitzuten batere gogoko. Birsaltzaileei produktuak pilatu eta eskasia-garaietan oso garesti saltzea leporatzen zieten, oro har. Baina udaleko lekurik apartatuenetara produktuak iritsi ahal izateko birsaltzaileak beharrezkoak zirenez, udalak ez zuen haien jarduera debekatu. Oztopatu, ordea, oztopatu zuen, batik bat hornitzaile zuzenak eta merkatua bera gai zirenean biztanleria euren kasa hornitzeko. Horixe gertatu zen Bilboko udalak erabaki zuenean Portugaleteko sardinak zuzenean hango sardina-saltzaileek saldu behar zituztela hirian⁷¹.

tari eta tratulariri pisu- eta neurri-jokoak ematen zitzaizkien errenta baten truke. XV. mendearen amaieran, merkatari, harakin eta tratulariei emandako 258 baimen zeuden Bilbon, pisu eta neurriak euren establezimenduetan erabil zitzaizkien⁷⁴. Udalaren egitekoa pisu eta neurri horiek zaintzea zen, merkatariak aldatu ez zitzaizkien eta, ondorioz, kontsumitzaileek kalterik jasan ez zezaten. Horretarako, lau hilean behin, pisatu eta neurtzeko tresnak jatorrizkoak ziren egiaztatzen zuten Bilboko fielek.

Azoka, bere aldetik, udalarentzat interesgarria zen merkataritza kontrolatzeko, saltokiak leku batean eta aldi berean biltzen zituelako. 1300. urtean, hiri-gutunarekin batera, azoka asteartetan egiteko pribilegioa jaso zuen Bilbok. Gero, Maria Lopez de Harok 1310ean egindako birfundazioan,


asteazkenera igaro zen. Hasierako asteko azoka hori baina, urtekoa bezala, aurki utzi zuen itzalean hirian egiten zen eguneroko azokak, askoz eraginkorragoa baitzen Bilboko biztanleria hornitzeko.

XV. mendean, Bizkaiko hiribilduetan ez zen asteko azokaz berba egiten, egunerokoaz baizik. Eguneroko azoka horri zeia deitzen zitzaion, eta leku zehatz batean, Bilbon Erriberako Plaza Nagusian hain zuzen ere, finkatutako azoka egonkorra zen. Mende horretan bertan, azoka-etxearen berri ematen da Bilbon. Azoka-etxe horretan zereala gorde eta saltzen zen. Beste produktu batzuk, haragia eta arraina kasu, inguruko beste toki batzuetan saltzen ziren. Saltsaile ibiltariekin batera, euren negozioak dendetan gauzatzen zituzten merkatari egonkorrek ere baziren. Bi mota-tako saltsaile horiei esker, hiriak biztanleria



BILBOKO MERKATARITZAREN BARNE-KONTROLA ERDI AROAN

hornitza lortzen zuen. Une zehatz batzuetan bakarrik eteten zuen udalak merkataritza-fluxu hori, hain zuzen ere igandeetan, erlijio-festetan eta Pazko-egunetan, horrela eskatzen baitzuen erlijioarenganako begiruneak.



SANTIAGO ELIZAREN ABSIDEKO KONTRAHORMEN HUTSARTEETAN DENDA TXIKIAK DAUDE GAUR EGUN. ERDI AROAN UGARI EGONGO ZIREN HAIETAKO BATZUK IZANGO DIRA ZIUR ASKI

Oharrak

- 1500eko dokumentua. A.G.S.-R.G.S., Errege Batzarra, 91. leg., 1. or. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 22 or.
- Durangoko Foru Zaharraren kasuan, heriotza-zigorra ere ezartzen zitzaion beste baten lursaileko hiru sagarrondo edo gehiago mozten zituenari: «*Otrosi si algún home cortase en heredad agena pies de manzanos de tres en arriba que muera por ello como fechor...*» Durangoko merindadeko Foru Zaharra, 27. kap. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 25 or.
- 1497-05-26ko dokumentua. Bilboko udal-artxibategia, 8. tiradera, 2. erreg., 2 zenb. Ordenantzen bilduma, 86. or. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 27 or.
- Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. I. liburukia. Op. cit. 503 or.
- Bilboko Ordenantzen bilduma, 1477tik 1539ra. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. III. liburukia. Op. cit. 467-488 orr.
- Hurrenez hurren: A.R. Ch., Pleitos de Vizcaya, 31 leg., 10 zenb., II (datarik gabe) eta A.R. Ch., Pleitos de Vizcaya, 886 leg., 7. zenb. (1439-00-00). Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 30-31 orr.
- Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. II. liburukia. Op. cit. 461-471 orr.

8. Hurrenez hurren: 1495eko dokumentua, A.R. Ch. Pleitos de Vizcaya, 7. leg., bakarra, eta 1499ko dokumentua, A.R. Ch. Pleitos de Vizcaya, 7. leg., bakarra. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 82 or.
9. Bilboko Ordenantzen bilduma, 1477tik 1539ra. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. III. liburukia. Op. cit. 467-488 orr.
10. A.G.S.-R.G.S. 1495-IXko Batzarra, 178 or. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 88 or.
11. Guiard, T.: *Historia de la Noble Villa de Bilbao*. I. liburukia. Op. cit. 24-33 orr.
12. 1424ko dokumentua, Bilboko udal-artxibategia, 4. tiradera, 2. erreg., 41 zenb. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 99 or.
13. Bilboko udal-artxibategia, 8. tiradera, 2. erreg., 2 zenb. Ordenantzen bilduma, 6. or. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 101 or.
14. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. III. liburukia. Op. cit. 22-32 orr.
15. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 120 or.
16. 1482ko dokumentua, Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. III. liburukia. Op. cit. 328-335 orr.
17. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 120 or.
18. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Vizcaya*. IV. liburukia. Op. cit. 467-488 orr.
19. Carlé, M.C.: "Mercaderes en Castilla (1252-1512)". *Cuadernos de Historia de España*. XXI-XXII liburukiak, 146-328 orr. eta 212 or.
20. Guiard, T.: *La industria naval vizcaína*. Biblioteca Vascongada Villar. Bilbo, 1968. 30-42 orr.
21. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. II. liburukia. Op. cit. 422 or.
22. Id. Ibid. III, 45 or.
23. Guiard, T.: *Historia del Consulado de Bilbao*, I, Op. cit. Hitzaurrea.
24. Id. Ibid. LXXIX eta LXXXI orr.
25. A.G.S.-R.G.S., 1488-V, 201 or. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 126 or.
26. Fernández Duro, C.: "La marina de Castilla, desde su origen y pugna con la de Inglaterra hasta la refundación en la Armada española". Canovas del Castillok zuzendutako *Historia general de España*. Madril, El progreso Editorial, 1891, 35. eranskina, 486 or.
27. 1498-IIIko dokumentua, bilduma berri-berria, IX. Lib., VIII. tit., IV. leg. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 126 or.
28. Fernández Duro, C.k argitaratutako dokumentua: *Disquisiciones náuticas*. Arbau y Cía, Madril, 1876. 18. zehaztasuna, V. liburukia, 355 or.
29. Guiard, T.: *La industria naval vizcaína*. Op. cit. 32 or.
30. Ciriquiain-Gaiztarro, M.: "Las primeras representaciones gráficas de embarcaciones del litoral vasco". *Boletín de la Real Sociedad Vasca de Amigos del País*. X. urtea, 1954. 58-64 orr.
31. Larrañaga, K.: *Los vascos y la técnica naval mediterránea en el tardo Medioevo*. Euskal Antropologiarren III. Asteko separata. 336-337 orr.
32. Guiard, T.: *La industria naval vizcaína*. Op. cit. 47 or.
33. *Diccionario de la Real Academia Española*. «Carabela» hitza.
34. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 132 or.
35. Areitio, D. de: *Los vascos en la Historia de España*. Bizkaiko Kultura Batzordeko Argitalpenak. Bilbo, 1959. 135-136 orr.
36. Termino hauetako gehienak ezezagunak dira gaur egun; beraz, euren esanahia argitzea komeni da. Arnesa: armadura. Koraza: bularrekoz eta bizkarrekoz osatutako burdinazko armadura.

Txaramela: burdinazko sare-mailaz estalitako gerrirainoko larruzko janzkia; soldadu espainiarrek erabili zuten XV. mende-amaierara arte. Kapazetea: burua babesten zuen armadurako pieza. Zelada: aurpegia babesten zuen armadurako zatia. Kaskoa: kaskezurra babesten zuen armadura-ko pieza. Gozete edo muskia: armaduraren sare-mailazko besapekoa. Azkona: euskal jatorriko arma jaurtigarria. Bulioia: daga, sastakai edo ganibet modukoa. Aizkolta: esku bakarraz erabiltzeko aizkora txikia. Bonbarda: kalibre handiko kanoia. Espingarda: falkonetea baino zerbait handiagoa eta eraisteko pieza baino txikiagoa zen artilleriako pieza. Tamaina handiko arkabuza ere bai. Larakoa: brontzeko edo burdina forjatuzko artilleriako pieza, gezi-jaurtigailua baino txikiagoa. Ikus: Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 133-134 orr.

37. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 141 or.

38. Basterra, M.: *Vizcaya minera*. Miserikordia Etxeko inprimategia. Bilbo, 1894. 10 or.

39. 1515eko dokumentua, 4a preg. A.G.S. Batzarra, 2. leg., 13. or., I, 4 or. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 143 or.

40. 1507-Xeko dokumentua, González, T.k argitaratua: *Colección de cédulas, Cartas Pueblas...* II. liburukia. Op. cit. 6-39 orr.

41. Fernández de Pinedo, E.: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco*. 1100-1850. Madril, Siglo XXI, 1974. 30 or.

42. Horrela ikusten da Teresa de Atucholak Juan Ortiz de Usansolorekin izandako auzian. Auzi horretan baserria, burdinola eta errota "550 kintal burdinekin" kitatu ziren. 1494ko dokumentua, A.R. Chancillería, Pleitos de Vizcaya, 32. leg., 12 zenb. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 14 or.

43. García de Cortázar, J.Á.: *Vizcaya en el siglo XV. Aspectos económicos y sociales*. Op. cit. 126 or.

44. García Merino, L.V.: *La formación de una ciudad industrial...* Op. cit. 279 or.

45. 1372-Ieko dokumentua, Balparda, G.: *Historia crítica de Vizcaya y de sus fueros*. II. liburukia. Bilbo, Bilboko Aurrezki Kutxa, 1974. 464-469 orr.

46. A.C. Cenarruza, 12. reg, 21 zenb. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 153 or.

47. Hurrenez hurren: Foru Zaharra, CCXI. atala eta Foru Berria, 28. tit., 1. legea eta 1342ko kapitulatua. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 150-153 orr.

48. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 163 or.

49. Gurevic, Aron Ja.: "El mercader". *El hombre medieval*. Alianza, Madril, 1990. 255 or.

50. Atal honetarako ikus Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 242-246 orr.

51. A.R.Chancillería. Pleitos Vizcaya, 51. leg, 1 zenb. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 246 or.

52. A.G.S.-R.G.S., 1488, I, 139 or. Arizaga Bolumburu, B.: "La figura del mercader vizcaíno en la Baja Edad Media". *Congreso de Estudios Históricos "Vizcaya en la Edad Media"*. Op. cit. 32 or.

53. A.G.S.-R.G.S., 1500, X, orririk gabe. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 251 or.

54. Ikus Arizaga Bolumburu, B.: "La figura del mercader vizcaíno...". *Congreso de Estudios Históricos "Vizcaya en la Edad Media"*. Op. cit. 321-322 orr.

55. Hurrenez hurren: A.R. Ch. Pleitos Vizcaya, 51. leg., 1 zenb.; A.G.S.-R.G.S., 1476, V, 548 or. eta A.G.S.-R.G.S., 1488, VII, 195 or. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 252-253 orr.

56. Hurrenez hurren: A.G.S.-R.G.S., 1483, X, 214 or. eta A.G.S.-R.G.S., 1484, VI, 61 or. Arizaga Bolumburu, B.: "La figura del mercader vizcaíno...". *Congreso de Estudios Históricos "Vizcaya en la Edad Media"*. Op. cit. 324 or.
57. Eguiluz Ortiz de Latierro: "Veinticinco años de fricciones en el comercio marítimo cantábrico". *Boletín Sancho el Sabio*, XXII, Gasteiz, 1978. 107-108 orr.
58. A.G.S.-R.G.S., 1487, IV, 162 or. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 276 or.
59. A.G.S.-R.G.S., 1485, IX, 230 or. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 287 or.
60. Bilboko udal-artxibategia, 4. tiradera, 2. erreg., 68 zenb. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 292 or.
61. Hurrenez hurren: A.G.S.-R.G.S., 1496, XII, 274 or.; A.G.S.-R.G.S., 1483, XI, 216 or. eta 1478, VIII, 43 or. eta A.G.S.-R.G.S., 1504, XI, orririk gabe eta 1496, XII, 274 or. Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. II. liburukia. Op. cit. 300 or.
62. Basas Fernández, M.: "El esplendor del comercio bilbaíno durante el siglo XVI". *Bilbao, arte e historia*. I. liburukia. Op. cit. 61 or.
63. Bilbo hiriaren horniduraren gaia ondorengo artikulua bitartez landu da gehien bat: Arizaga Bolumburu, B.: "El abastecimiento de las villas vizcaínas medievales: política comercial de las villas respecto al entorno y a su interior". *La ciudad hispánica de los siglos XIII al XVI*. I. liburukia. Madrid: Unibertsitate Koplutense, Madril, 1985.
64. A.G.S., Gaztelako Ganbera, Zedula-liburuak, 4 zenb., 174 or. Arizaga, B.: "El abastecimiento de las villas vizcaínas...". *La ciudad hispánica de los siglos XIII al XVI*. Op. cit. 295 or.
65. González, T.-k argitaratutako dokumentua: *Colección de cédulas, Cartas pueblas...* I. liburukia. Op. cit. 297-299 orr.
66. A.G.S.-R.G.S., 1489-III, 57 or. Arizaga, B.: "El abastecimiento de las villas vizcaínas...". *La ciudad hispánica de los siglos XIII al XVI*. Op. cit. 301 or.
67. Bilboko ardo-hornidurari buruzko ordenantzak. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. II. liburukia. Op. cit. 503-506 orr.
68. Bilboko udal-artxibategia, 8. tiradera, 2. erreg., 2 zenb. Arizaga, B.: "El abastecimiento de las villas vizcaínas...". *La ciudad hispánica de los siglos XIII al XVI*. Op. cit. 305 or.
69. Bilboko ordenantzen bilduma. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. IV. liburukia. Op. cit. 467-488 orr.
70. Bilboko udal-artxibategia, 8. tiradera, 2. erreg., 2 zenb. Arizaga, B.: "El abastecimiento de las villas vizcaínas...". *La ciudad hispánica de los siglos XIII al XVI*. Op. cit. 306 or.
71. Bilboko ordenantzen bilduma. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. IV. liburukia. Op. cit. 467-488 orr.
72. Bilboko udal-artxibategia, 8. tiradera, 2. erreg., 2 zenb. Arizaga, B.: "El abastecimiento de las villas vizcaínas...". *La ciudad hispánica de los siglos XIII al XVI*. Op. cit. 310 or.
73. Bilboko ordenantzen bilduma. Labayru, E.: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. IV. liburukia. Op. cit. 467-488 orr.
74. *Id. Ibid.* 467-488 orr.